

6 KAUSAZKO PERPAUSAK I

Adibidea ikusi ondoren erantzun iezaiezu galdera hauei.

Adibidez: Zergatik ez nauzu gonbidatu gosaltzera? (Esnerik erosi ez)

Esnerik ez dudalako erosi

1. Zergatik lotsatzen zaitu horrek? (Astakeriak esan) **-(E)LAKO**
2. Zergatik ez gaituzue agurtu? (Ikusi ez) **-BAIT**
3. Zergatik ez dira gauzak aldatzen? (Zailak izan) - **ETA**
4. Zergatik ez dizute hori aipatu? (Zu haserre egon) **-(E)NEZ GERO**
5. Zergatik ezin dute alkoholik edan? (Umeak izan) **-TEAGATIK**
6. Zergatik ezin dute gizonezkoek negarrik egin? (Gizarteak esan) **-(E)LAKO**
7. Zergatik ez da gezurrik esan behar? (Sudurra luzatu) **-BAIT**
8. Zergatik ezin da poxpolurik ukitu? (Erre egin) - **ETA**
9. Zergatik daude gudak munduan? (Interes ekonomiko asko egon) **-(E)NEZ GERO**

2. Berridatzi esaldiak **BAIT** erabiliz.

Adibidez: Igorrek ez du oparirik jaso bere eguna ez da eta.

Igorrek ez du oparirik jaso bere eguna ez baita

1. Auzokoak haserre daude gurekin, atzo gauean kantatzen etorri ginen eta.

2. Kontuz ibili behar da bidea zeharkatzean, auto ugari dago eta.

3. Guk hobeto jolastu genuen, haizea gure alde zegoen eta.

4. Ez nau agurtu nahi izan, atzo ez nion zigarrorik eman eta.

5. Sartu ezinik geratu zen, giltza ahaztu zitzaion eta

6. Beti hurbiltzen da gugana, beste lagunik ez du eta.

7. Kazetari hura ez zitzaidan batere gustatu, harroegi agertu zen eta

8. Ez zaitezte gure zain egon, ez gara joango eta.

9. Ezin izan nintzen zurekin elkartu, gaixo nengoen eta.